

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

134/2024 Foru Agindua, urriaren 18koa. Mahasti zahar eta azpimarragarriek osatzen duten ondarea Arabako Errioxan mantentzeko, hobetzeko, landatzeko eta babesteko prozesuan parte hartzeko intereseko adierazpenaren deialdia onartzea

“Zaharrak” deritzen mahastiak funtsezkoak dira Arabako Errioxako mahastien ekoizpenean; izan ere, neurri handi batean Errioxa jatorrizko deituraren gaineraketik bereizten dira. Mahasti zahar horiek balio natural eta produktibo handiko nekazaritza sistemak dira, eta eskualdean harrizko bizi-bizirik egon den material genetikoaren gordelekua, gaitasun handia baitaukate baldintza natural eta klimatiko okerretara egokitzeko, eta hori Arabako etorkizuneko mahastiak mantendu eta garatzea erraztu eta bermatzeko balio garrantzitsua da. Hala ere, mahasti horiek kalitate bereiziko ardoak egiteko oso faktore garrantzitsuak izan arren, landatarrak, produktibitate txikikoak eta dibertsitate handikoak direnez, arriskuan daude ekoizpen txikia dutelako eta maneiatzeko eta hazteko zailtasunak dituztelako.

Hala eta guztiz ere, Arabako Errioxa eskualdean badago haren mantenu eta kontserbazioarekiko kezka bat, eta horren ondorioz, hainbat upategi eta mahastizain partikularrek mahasti-mota horietan interesa erakutsi dute kalitate handiko ekoizpenak lortzeko, eta, horrela, egiten dituzten ardoen kalitatea hobetuko da eta, ondorioz, egungo ardogintza-merkatu zailean duten posizioa hobetuko da.

Horregatik, Nekazaritza Sailak, Arabako mahastizaintza, oro har, eta, bereziki, Arabako Errioxako mahastizaintza sektorea hobetzen laguntzeko helburua betetzean, egokitzat jotzen du mahasti-mota horiek sustatzeko eta garatzeko ekintzetan parte hartzeko interesa adierazten duten eragile pribatu guztiak bilduko dituen zerrenda bat eratzea, bai eta mahastiak kontserbatu, hobetu eta mantentzeko politikak diseinatzea ere, eta horretarako kontsulta egitea.

Administrazio publikoen ekintzan egon behar duten publikotasun, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzen direla bermatzeko, Arabako Lurralde Historikoko mahasti zaharrak eta azpimarragarriak babesteko eta kontserbatzeko politikak garatzeko eta sustatzeko ekintzetan parte hartzeko intereseko adierazpenak aurkezteko sistema bat ezartzen da, honekin batera doan eranskinean garatzen diren oinarriekin bat etorritik.

Hala ere, ildo horretan aurkezten diren inprimakiak informatzeko baino ez dira izango, ez dira inongo administrazio-prozeduratan sartuko, eta ez dute inolako eskubiderik sortuko.

Ikusi dira espedienteak, aipatutako lege-aginduak eta aplikatutakoak diren gainerakoak, Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak, Arabako Foru Aldundiaren 2023-2027 legegintzaldirako sailak finkatzen dituenak (ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuak aldatu zuen dekretu hori), ematen dizkidan eskumenak erabilia, eta hala,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Arabako Errioxan mahasti zahar eta azpimarragarriek osatzen duten ondarea mantendu, hobetu, landatu eta babesteko parte-hartzaile talde bat ezartzeko intereseko adierazpenaren deialdia, Agindu honen I. eranskinean aurreikusitako baldintzetan.

Bigarrena. Ebazpen honen II. eranskinean jasotako inprimakiaren bidez aurkeztu beharko da intereseko adierazpena.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 18a

Nekazaritzaren Saileko foru diputatua
NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria
DAVID FERNÁNDEZ SARABIA

I. ERANSKINA

ARABAKO FORU ALDUNDIKO NEKAZARITZA SAILAK MAHASTI ZAHARRAK ETA AZPIMARRAGARRIAK BABESTEKO ETA KONTSERBATZEKO POLITIKAK SUSTATZEKO EGITEN DITUEN EKINTZETAN PARTE HARTZEKO INTERESA AGERTZEKO DEIALDIAREN JARRAIBIDEAK

1. Partaideak

1.1. Onartutako inprimakia Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza-ustategien titular diren upategi eta mahastizaintzat da, baldin eta interesa badute Arabako Foru Aldundiak mahasti zaharrak eta azpimarragarriak babestu eta kontserbatzeko garatzen dituen politikak sustatzeko ekintzetan parte hartzeko.

1.2. Deialdi honek interes-adierazpenetarako deia barne hartzen du, baina ez du inolara ere ekarriko administrazio-prozeduran parte hartzea, eta ez du inolako eskubiderik sortuko.

2. Interes-adierazpena aurkezteko epea, modua eta lekua

2.1. Interesdunek dagokion interes-adierazpena aurkeztu beharko dute foru aginduaren II. eranskineko inprimakiaren bidez Arabako Foru Aldundiko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari zuzenduta.

2.2. Interes-adierazpen hori Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (<https://egoitza.araba.eus/es/-/registro-electronico-comun>) edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan aurreikusitako administrazio bakoitzaren aurkezpen elektronikoaren bidez aurkeztu beharko da, aipatutako legearen 14.2 eta 16.4 artikuluetan ezarritakoari kalterik egin gabe.

2.3. Interes-adierazpena aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

3. Interes-adierazpenak aztertzea eta parte-hartzaileen zerrenda eratzea

3.1. Norgehiagokako deialdia ez denez, bertan onartuko dira eskabidea betez interesa adierazten duten eta 1. paragrafoan ezarritako irizpide orokorrak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiak.

3.2. Eskabideak aztertu ondoren, Nekazaritza Sailak zerrenda horretan sartzea ukatuko die 1. artikuluan ezarritakoaren arabera desegokitzen jotzen ditueni, eta hori interesdunei jakinaraziko zaie.

3.3. Eskatzaileei jakinaraziko zaie mahasti zaharrak eta azpimarragarriak babesteko eta kontserbatzeko politikak sustatzeko ekintzetako parte-hartzaileen zerrendan sartu direla, eta edozein unetan eskatu ahal izango dute baja.

Era berean, 1. paragrafoan aurreikusitako irizpideak betetzeari uzten dioten parte-hartzaileei baja emango zaie ofizioz.

3.4. Zerrendan sartzeak eskubidea emango du Arabako Foru Aldundiaren informazioa jasotzeko lurralde historikoko mahasti zaharrak eta azpimarragarriak mantentzeko eta kontserbatzeko aurreikusitako ekintzei buruz, bai eta ekintza horietan parte hartzeko ere.

3.5. Parte-hartzaileen zerrendan sartzen diren pertsonen parte hartzen duten jardueren arabera Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak koordinatuko ditu.

3.6. Parte-hartzaileen zerrendan sartzeak ez dakar Arabako Foru Aldundiak inolako ordain-saririk ordaintzea.

3.7. Eranskin honetako 2.3 zenbakian aurreikusitakoa gorabehera, hasierako zerrenda egin ondoren, parte-hartze handiagoa bermatze aldera, kide berriak sartu ahal izango dira hasierako zerrenda horretan, betiere 1. paragrafoan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte.

4. Datuen konfidentzialtasuna

4.1. Parte-hartzaileen zerrendako kideek, deialdiaren xedearekin lotutako jarduerari buruz lortutako datuen titular direnek, datu horiek Arabako Foru Aldundiarekin partekatze konpromisoa hartzen dute.

4.2. Era berean, Arabako Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du datu horien konfidentzialtasuna errespetatzeko. Aldundiak datuok erabili ahal izango ditu helburuak betetzeko, baina ezingo ditu inolaz ere partekatu beste erakunde batzuekin, ez eta argitaratu ere, baldin eta datu horiek lagatzen dituzten pertsonen horretarako berariazko baimena ematen ez badute.

4.3. Deialdi honen helburuak lortzeko, parte-hartzaileek baimena ematen dute bertan parte hartu dutela jakitera emateko.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Arabako L.H.ko mahasti zaharren eta nabarmenen kontserbazioan, hobekuntzan, lantzean eta babesa ematean interesa duten ekintzaileen zerrendan sartzeko eskabidea.

Solicitud de inclusión en el listado de agentes interesados en el mantenimiento, mejora, cultivo y protección del patrimonio que constituyen los viñedos viejos y remarcables del T.H. de Alava

CMI-1/2024

Nekazaritza Saila

Departamento de Agricultura

Eskaera zk. ■ N° Solicitud :

Adm-k betetzeko ■ A cumplimentar por la Adm.

ESKATZAILEAREN DATUAK ■ DATOS DEL SOLICITANTE

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo			Identifikazio zk. ■ N° identificativo		Sexua ■ Sexo		
<input type="checkbox"/> IKZ NIF	<input type="checkbox"/> AIZ NIE	<input type="checkbox"/> Besteren bat Otro			<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre	
Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social			Lehen abizena ■ Primer apellido		Bigarren abizena ■ Segundo apellido		
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)			Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
Herraldea ■ País	Probintzia ■ Provincia	Udalerría ■ Municipio	Herría ■ Localidad		P. K. ■ C. P.		
Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico	Uztiategi kod. ■ Cód. explotación				

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)			Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
Herraldea ■ País	Probintzia ■ Provincia	Udalerría ■ Municipio	Herría ■ Localidad		P. K. ■ C. P.		

ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo			Identifikazio zk. ■ N° identificativo		Sexua ■ Sexo	
<input type="checkbox"/> NAN DNI	<input type="checkbox"/> AIZ NIE	<input type="checkbox"/> Besteren bat Otro			<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre
Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social			Lehen abizena ■ Primer apellido		Bigarren abizena ■ Segundo apellido	
Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Faxa ■ Fax	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico			



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Arabako L.H.ko mahasti zaharren eta nabarmenen kontserbazioan, hobekuntzan, lantzean eta babesa ematean interesa duten ekintzaileen zerrendan sartzeko eskabidea.

Solicitud de inclusión en el listado de agentes interesados en el mantenimiento, mejora, cultivo y protección del patrimonio que constituyen los viñedos viejos y remarcables del T.H. de Alava


CMI-1/2024

Nekazaritza Saila

Departamento de Agricultura

ESKATZAILEAREN INFORMAZIOA ■ INFORMACIÓN DEL SOLICITANTE

Erakundeak duen intersea eta motibazioa. Horretaz gain, orain arte mahasti zaharrak eta nabarmenak kontserbatzeko eta babesteko egindakoa. ■ Resumen del interés y motivaciones, así como de lo realizado hasta la fecha de esta solicitud en materia de conservación y protección de viñedos históricos y remarcables.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Arabako L.H.ko mahasti zaharren eta nabarmenen kontserbazioan, hobekuntzan, lantzean eta babesa ematean interesa duten ekintzaileen zerrendan sartzeko eskabidea.</p> <p>Solicitud de inclusión en el listado de agentes interesados en el mantenimiento, mejora, cultivo y protección del patrimonio que constituyen los viñedos viejos y remarcables del T.H. de Alava</p> <p style="text-align: center;">CMI-1/2024</p>
--	--

Nekazaritza Saila

Departamento de Agricultura

<input type="checkbox"/> Berdintasunaren arloko araudiko baldintzak onartzen ditut: Berdintasunaren arloko araudia betez aitortpena ikusi https://egoitza.araba.eus/documents/6024681/0/normativa-igualdad.pdf	<input type="checkbox"/> Acepto las condiciones de la normativa en materia de igualdad : Ver Declaración de normativa en materia de Igualdad : https://egoitza.araba.eus/documents/6024681/0/normativa-igualdad.pdf
--	--

<p>Lege oharra.</p> <p>Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela eta:</p> <ul style="list-style-type: none"> - T24 NEKAZARITZA USTIAPENEN JABEAK tratamenduetan erantsiko direla, helburu honekin: Lehen sektoreko dirulaguntzak kudeatzea. - T39 HIRUGARRENAK ETA INTERESATUAK tratamenduetan erantsiko direla, helburu honekin: aurrekontu eta aurrekontu kanpoko burutzapen eragiketak izapidetzea, hala gastuenak nola sarrerrenak. <p>Datu horiek islipetako dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.</p> <p>Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOk aitortzen baititu, eta, horretarako, Egoitza Elektronikoz baliatu ahalko zara www.araba.eus atarian edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo ahalko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba).</p> <p>Informazio gehiago eskuratzeko: https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua</p>	<p>Aviso Legal</p> <p>Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que Vd. nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar en los tratamientos de:</p> <ul style="list-style-type: none"> - T24 TITULARES DE EXPLOTACIONES AGRARIAS para la finalidad de Gestión de subvenciones del sector primario. - T39 TERCEROS E INTERESADOS para la finalidad de la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria o extrapresupuestaria, tanto de gastos como ingresos. <p>Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.</p> <p>Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación y portabilidad que reconoce el RGPD, en la sede electrónica www.araba.eus o dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, (Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz, Álava).</p> <p>Para más información: https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado</p>
---	--

<input type="checkbox"/> Onesten dut Arabako Foru Aldundiak nire datu pertsonalak kudeatu ditzala deialdi honen kudeaketa egiteko	<input type="checkbox"/> Acepto que Diputación Foral de Álava gestione mis datos personales para realizar la gestión de esta convocatoria.
--	--

ESKATZEN DUT:	SOLICITO:
<p>Arabako L.H.ko mahasti zaharren eta nabarmenen kontserbazioan, hobekuntzan, lantzean eta babesa ematean interesa duten ekintzaileen zerrendan nire sartzeko.</p>	<p>Mi inclusión en el listado de agentes interesados en el mantenimiento, mejora, cultivo y protección del patrimonio que constituyen los viñedos viejos y remarcables del T.H. de Alava.</p>

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/ordezkararen sinadura eta zigilua ■ Firma de la persona solicitante/representante y sello